

Orain betetzen da lehen Euskal Udal Administrazioaren Biltzarrean aurkeztu ziren lanen bilduma argitaratu zeneko 75. urtemuga, Biltzar hura 1919ko irailaren 17-21 bitartean egina zelarik.

Gisa horretako gertakari bat ebaluatu ahal izateko hainbat parametro hartu beharra dago kontuan. Lehenik eta behin proiektuari berari, hau da, haren berezko balioari erreparatu behar diogu, proiektua idaroki zuten helburuak eta nahiak eta gauzatzera erabilitako baliabideak kontuan hartuz. Horrenbestez, harrigarria da Biltzarrerako lehen deialdian egiten den egoeraren azterketa argia. Harako hartan, jadanik, Eusko Ikaskuntzak gerora bultzatuko zituen Kongresuen eta bilkuren joera agertzen baita, hots, gertakariari dagokion alorreko zientzia gizonak eta praktikoak biltzeko xedea, egiazko arazoak baliabide teoriko egokien bidez aztertzeko gogoia laborategiko edo gabineteko “kasu” teorikoak alde batera utzirik. Udal administrazioaren benetako arazoak, bizirik zeudenak antzematea zen Elkartearen xedea, bai eta haietarako soluzio egokiak aurkitzea eta aplikatzea.

Biltzarrerako txostenak egin arazterakoan buruturiko praxia da kontuan hartu beharreko bigarren parametroa. Elkartea aurreko urtean sortua zen, 1918an, gizartearen hainbat instantziaren bilgune eta artikulazio gisa, ezen, orduko usteen arabera komunitateko agenteei ahalik eta protagonismo gehiena ematea iraupenezko gizarte dinamika sortzeko modurik onena zen. Idoia Estornésesek adierazi duenez txostengileen artean baziren “Euskal Foru Aldundietako bost ordezkari: Gipuzkoako bi (Elorza eta Gascue), Nafarroako bi (Oroz eta Villanueva) eta Arabako bat (González de Suso). Halaber, lau ziren Bilboko Udaleko ordezkariak (Leizaola, Migoya, Bastida eta Beraza), bi irakaskuntzakoak (Elorrieta Unibertsitatearen aldetik, Urabayen maisu-maistren normalaren aldetik), bi idazle (Campión eta Maeztu), Estatuko abokatu bat (Díaz de Arcaya), mediku bat (Larumbe), (INPko ordezkari bat (G. Mujika) eta Gorteetako diputatu bat (Senante)” (La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936), Donostia, 1983, 236. or.).

Herriaren aldetik izandako erantzunari buruzko itxarobideak gaindituak izan ziren itxuraz, seirehun inguru izenemate izen baitziren —hain arteko 97 udalei dagozkie—. Bertaratuen kopurua neurtzerakoan, garai hartan lekualdaketek eta egonaldiak sortarazten zuten arazoa hartu behar da kontuan. Gipuzkoak, Biltzarraren egoitza, kopuru handiena ekarri zuen: Udaletako alkateak, zinegoziak, idazkariak, Udal administrazioari loturiko profesionalak —mediku titularrak eta

albaitariak—, elkarteetako ordezkariak, lanbide elkargoak eta jabetza ganbarak bildu ziren Donostiako ekitaldian. Bertan izen emandakoen artean bizkaitarren pisua nabarmentzekoa da, nafarrena aski esanguratsua izan zen, arabarrena ahulagoa gertatu zen bitartean. (Ikus. izen emandakoen zerrenda, aipatu obraren 421-443. orrialdeetan, eta Elko 4. Boletineko Informazioa (1919), 13-15 orr.).

Honelako gertakariak ebaluatzerakoan, gauza horien ondoko bilakabidean eragina izateko eta baldintzatzeko duten ahalmena kontuan hartu beharreko hirugarren elementua dugu. Izan ere, Udal Biltzarra pentsatu eta gauzatu zutenek aurrikuspen ahalmena ote zuten, funtsezko arazoak hautatzerakoan eta soluzioak proposatzerakoan asmatu ote zuten erabakitzeke gauzen bilakabidea dugu froga-harrietariko bat. Ildo horretatik, zerbait adieraztea komenigarria da, José Manuel Castellsek egin duen bezala [La Euskadi autónoma y los funcionarios públicos, Donostia, Erein, 22-27 orr.]. Donostiako Biltzarra mugarri garrantzitsua da foru probintziek XIX. eta XX. mendeetan Estatu konstituzionalak ezarritako erregimen komunaren barne, udal berezitasuna mantentzeko eta hedatzeko buruturiko borroka luzean. Herrialdearen egitura politikoa berezia eta hogeigarren eta hogeitamargarren arteetako testuinguru instituzionala —Primo de Riveraren Diktaduraren autoritarismoa gailen zela, gogora ekar dezagun Calvo Soteloren Estatuto Municipal delakoa eta II. Errepublikaren garaiko egonkortasunik eza—. Biltzarreko ondorioetan ezarritako bidean aurreratzeko oztopoak izan ziren. Baina haren proposamenak erreferentzia puntu izaten jarraitu ziren, nola edo hala funtzionarien Arautegi probintzialak moldatzerakoan kontuan hartu baitziren, bai eta hogeitamargarren arteetako Autonomi Estatutuaren agindu batzuen idarokizun-elementu gisa.

Euskal Herriko udal historian toki gailena da Biltzarrari dagokiona. Lehen mailako gertakaritzat hartu behar baita egungo garaietako Euskal Herriko udalen lehen bilkura hau —itxiera ekitaldian Lapurdiko Hazparne hiriko alkatea eta Baionako apezpikuaren ordezkari izan ziren—. Udal erakundearen arazoei buruzko azterketa eta gogapenerako dei zabala egiterakoan, Biltzarrak tradiziozko foraltasun agurgarri haren tokiko eta probintziako mugak gainditzen zituen, ohi-turazkoa hausten zuen eta inplizituki salatzen zuen foru-hondakinetan geratze soilaren etsipena. Hitz batean, modernitatearen eta heldutasun kolektiboaren zeinu esperantzagarria zen.

HAEEko buruzagien eskuzabaltasunari esker, obra honen birrargitalpena faksimila bideratu ahal izan da. Orri hauetan oraino, seguru nago, askoren begi bistan agertuko da udal alorrean gure arbasoen legatua eta modernotasunaren eskakizunak sintesi egiteak, sortzeak, liluratua zuen belaunaldi haren izpiritu mirezgarria.

*Gregorio Monreal Zia*  
Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria

Se cumple ahora el 75 aniversario de la publicación de la recopilación de los trabajos presentados en la primera Asamblea de Administración Municipal Vasca, que se había celebrado entre los días 17 y 21 de septiembre de 1919.

Un acontecimiento como aquél debe ser evaluado teniendo en cuenta distintos parámetros. Importa en primer lugar el proyecto en sí mismo, es decir su valía intrínseca, teniendo en cuenta los objetivos y las ambiciones que los inspiraron y los medios puestos al servicio de su realización. En este sentido sorprende en la convocatoria inicial la lucidez en el examen de la situación. Y se manifiesta ya la tendencia característica de los Congresos y reuniones posteriores de la Sociedad de Estudios Vascos, la pretensión de reunir en el evento a los hombres de ciencia y a los prácticos implicados en el campo respectivo, de estudiar con buenas herramientas teóricas auténticos problemas, dejando de lado los “casos” académicos de laboratorio o gabinete. La Sociedad pretendía detectar los problemas reales, vivos, de la Administración municipal y encontrar y propiciar la aplicación de buenas soluciones.

Un segundo parámetro a considerar es la praxis seguida en los encargos de las ponencias de la Asamblea. La Sociedad se había constituido el año anterior, en 1918, como lugar de encuentro y articulación de distintas instancias sociales, dado que existía el convencimiento de que la concesión de todo el protagonismo posible a los agentes de la comunidad es la mejor forma de generar una dinámica social sostenida. Como ha visto Idoia Estornés, entre los ponentes había “cinco representantes de las Diputaciones vascas: dos de la de Guipúzcoa (Elorza y Gascue), dos de la de Navarra (Oroz y Villanueva) y uno de Alava (González de Suso). Asimismo, cuatro representantes del Ayuntamiento de Bilbao (Leizaola, Migoya, Bastida y Beraza), dos de la enseñanza (universidad por Elorrieta, normal de maestros por Urabayen), dos escritores (Campión y Maeztu), un abogado del estado (Díaz de Arcaya), un médico (Larumbe), un representante del INP (G. Mújica), y un diputado a Cortes (Senante)” [en *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, San Sebastián, 1983, p. 2361.

Las expectativas en cuanto a la respuesta del país fueron quizás sobrepasadas, al registrarse cerca de seiscientas inscripciones —entre ellos 97 ayuntamientos—. Al ponderar la presencia hay que tener en cuenta el problema que suscitaban en la época los desplazamientos y estancias. Guipúzcoa, sede de la Asamblea, aportó la representación más nutrida: acudieron a las sesiones asamblearias de Donostia alcaldes y concejales de Ayuntamientos, secretarios, profesionales vinculados a la Administración municipal —médicos titulares y veterinarios—, representantes de asociaciones, colegios profesionales y cámaras de la propiedad. En lo que concierne a los inscritos, fue muy notable el peso vizcaíno, significativa la presencia navarra, y más débil la representación ala-

vesa. (Vid. la relación de inscritos en las páginas 421-443 de esta obra, y la información contenida en el Boletín de El-SEV nº 4 (1919) 13-15)

La capacidad de incidir y de condicionar el curso posterior de las cosas es un tercer elemento a la hora de evaluar un acontecimiento de esta índole. El devenir constituye sin duda uno de los bancos de prueba para verificar si los que concibieron y dieron cuerpo a la Asamblea municipal disponían o no de capacidad de anticipación, si acertaron o no en la selección de los problemas fundamentales y en la propuesta de soluciones. En ese sentido conviene anotar, como lo ha hecho José Manuel Castells [La Euskadi autónoma y los funcionarios públicos, San Sebastián, Erein, ps. 22-271, que la Asamblea de Donostia constituía un jalón importante en la larga lucha llevada a cabo por las provincias forales a lo largo del siglo XIX y XX para mantener y extender la excepcionalidad municipal dentro del régimen común implantado por el Estado Constitucional. La peculiar configuración política del país y el contexto institucional de los años veinte y treinta —en el que prevalecen el autoritarismo de la Dictadura de Primo de Rivera, recordemos el Estatuto Municipal de Calvo Sotelo, y la inestabilidad propia de la II República— dificultaron el seguimiento de la vía trazada en las conclusiones de la Asamblea. Pero sus propuestas quedaron como puntos de referencia que de alguna manera se tuvieron en cuenta en la elaboración de los Reglamentos provinciales de funcionarios y como elemento de inspiración de algunos preceptos de los Estatutos de Autonomía de los años treinta.

En la historia municipal de Vasconia la Asamblea ocupa un lugar propio y destacado. Como acontecimiento de primera magnitud hay que considerar la primera congregación en la contemporaneidad de los municipios de Euskal Herria —a la clausura del acto asistió incluso el alcalde de la villa laburdiana de Hasparren y un representante del obispo de Bayonne—. Al realizar una amplia convocatoria al estudio y a la reflexión sobre los problemas de la institución municipal, la Asamblea trascendía por primera vez los límites locales y provinciales propios de la venerable foralidad tradicional, rompía con la rutina y denunciaba implícitamente la resignada instalación en el residuo foral. Constituía en una palabra un signo esperanzador de modernidad y de maduración colectiva.

La generosidad de los rectores del IVAP ha permitido la edición facsímil de esta obra. Estoy seguro que muchos podrán contemplar todavía en sus páginas el admirable espíritu de una generación entusiasmada por la creación, por sintetizar en el ámbito municipal lo mejor del legado de nuestros mayores y las exigencias de la modernidad.

*Gregorio Monreal Zia*  
Presidente de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos